

Izurriak eta gaitzak baratzean saihesteko praktika egokiak

Baratzea ekosistema bat da. Bertan hazten ditugun kultiboak okupatzen duten espazioarekin erlazionatzen dira, baita inguruarekin eta nola ez, bertan bizi diren milaka bizidunekin ere.

Eta zergatik izurriak edo gaitzak sufritzen dituzte gure baratzeako landareek?

Lurra, espazioa edo kultiboak modu desegokian erabiltzen ari garen seinale izaten dira landareen izurrite eta gaitzak. Praktika erraz hauek betez gero, gure kultiboak izurrite eta gaitz potoloetatik salbu egongo dira:

- Askoz egokiagoa da baratze anitza edukitzea, monolaborantza praktikatzeko baino. Baratze anitza denean, anitzak izaten dira baratzeera hurbiltzen den fauna-espezieak eta lurlean bizi diren mikroorganismoak ere. Aniztasun honetan patogeno bat izurri edo gaitza sortzeko adina ugaltzea oso zaila izaten da, oreka egonkorra lortzen baita espezie anitzak etengabe tokia eta energiarengatik lehia daudenean.
- Bertako barietateak erabiltzea komeni da, bertako klima-baldintzetara eta lurretara ohituta baitaude.
- Lur gorriek higatzeko arriskua dute. Gainera, eguzki izpiak lurreko mikroorganismoak ere kaltetu ditzakete. Horregatik, halakotan lurra estaltzea komeni da, lastoa, egur-txirbila edo beste material organiko bat erabiliz Baratzea erabili behar ez dugun sasoitan ere ongarri berdeak erein ditzakegu
- Lurraren emankortasuna mantentzea funtsezkoa da, gure barazkien elikagaien iturri baita lurra. Horretarako:
 - Ongarri organikoak erabili behar dira, gure lurren ezaugarri eta hazten ditugun landareen beharren arabera material eta dosiak aplikatuz.
 - Errotazioak ondo antolatzen baditugu, landareek elikagaiak lurretik modu orekatuan xurgatzea lortuko dugu. Aldi berean, izurri edo gaitzak toki berean irauteko aukerak murriztuko ditugu.
- Zenbait landare elkartzea gomendatzen da: landare batzuek osagarriak dira elikagaiak lurretik ateratzeko orduan; beste batzuk berriz, ziklo osagarriak dituzte; zenbait barazki osasuntsu mantentzen laguntzen duten landareak ere, e.a. Hona hemen adibide batzuk:
 - Aza oso ondo hazten da baba, ilarra edo apioarekin batera.
 - Erremolatxa berriz ondo hazten da leka edo babarrunaren ondoan.
 - Azenarioaren ondoan porrua, baratxuria edo tipula jarri daiteke.
- Lurrak ondo drainatzeko gaitasuna edukitzea komeni da, gehiegizko hezetasuna eta putzuak saihesteko. Ongarri organikoak edo silize-hondarra lurlean botatzeak lagunduko dute drainatze egoki bat lortzen.
- Lurreko pH-a 7-aren ingurukoa edukitzea saiatu behar dugu, lurreko mikroorganismoak oso aktiboak egoten baitira pH tarte horretan, lurreko elikagaiak modu erabilgarrian mantenduz kultiboentzako.
- Lurra bakarrik sasoian dagoenean landu behar da. Ez badugu lur-sasoia errespetatzen lurra trinkotu dezakegu, estruktura desegin edo lurlean bizi diren mikroorganismoak murriztu arazi ere.
- Gaixo dauden landareekin erabilitako erreminta edo bestelakoak garbitzea komeni da beste landareekin erabili baino lehen.

Buenas prácticas que previenen la aparición de plagas y enfermedades en la huerta

La huerta es un ecosistema donde los cultivos se relacionan con el espacio-huerta, con el espacio circundante, y con la infinidad de seres vivos que lo habitan.

¿Por qué aparecen las plagas y/o las enfermedades en nuestros cultivos?

La mayoría de las veces su aparición está relacionada con una inadecuada gestión del suelo, de los espacios y de los cultivos. Con unas sencillas prácticas se puede evitar que nuestros cultivos sufran plagas y enfermedades importantes:

- Es mejor diversificar los cultivos que realizar monocultivos: una huerta diversa favorece la existencia también de una fauna y de una flora microbiana en el suelo muy diversa. En medio de esta diversidad hay pocas probabilidades de que un patógeno aumente tanto su población como para producir una enfermedad o una plaga. De hecho, mientras todas las especies compiten sin parar por el espacio y la energía, se produce un equilibrio fácilmente estable.
- Utilizar variedades locales, que se adaptan siempre mejor al clima y a los suelos del lugar.
- Evitar mantener los suelos desnudos, porque se erosionan con más facilidad. Además, las radiaciones del sol pueden afectar a los microorganismos del suelo. Para ello, se usan acolchados orgánicos: paja, viruta de madera, etc.
- También podemos optar por realizar abonos verdes en las épocas en las que la huerta no se va a cultivar
- Es fundamental mantener la fertilidad del suelo, que es en definitiva la fuente de nutrientes de nuestros cultivos. Para ello:
 - Usar abonados orgánicos, con materiales y cantidades adecuados a las propiedades de nuestros suelos y a los cultivos que se realizan.
 - Practicar rotaciones en nuestros cultivos, con el fin de que las plantas extraigan nutrientes del suelo de una forma equilibrada. Evitaremos asimismo que una plaga o enfermedad se establezca en el mismo lugar durante largo tiempo.
 - Asociar ciertas plantas: plantas que se complementan en la extracción de nutrientes del suelo, que se fortalecen mutuamente, que tienen ciclos temporales complementarios, que mantienen sano el cultivo, etc. Algunos ejemplos son:
 - Col con haba, guisante o apio.
 - Remolacha con vainas o alubias.
 - Zanahoria con puerro, ajo, cebolla.
- Conviene favorecer el buen drenaje de los suelos, para evitar exceso de humedad y encharcamientos. Para ello, se hacen aportes de abonos orgánicos, arena silíceo, etc.
- Favorecer que el pH del suelo esté en torno a 7, para que la actividad de los microorganismos del suelo sea máxima, y no existan problemas de disponibilidad de ciertos nutrientes.
- Conviene trabajar la tierra sólo en tempero, para evitar compactar el suelo, destruir su estructura o disminuir la flora microbiana que vive en él.
- Limpiar los útiles y herramientas de útiles que hayan estado en contacto con plantas enfermas.